

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**11043** *Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: 12/2021 Errege Lege Dekretua, ekainaren 24koa, Energia-fiskalitatearen arloan eta energia sortzearen arloan premiazko neurriak hartzen dituena, eta ura erabiltzeko tarifa eta uraren erregulazio-kanona kudeatzen dituena.*

Hutsa atzeman da Energia-fiskalitatearen arloan eta energia sortzearen arloan premiazko neurriak hartzen dituen eta ura erabiltzeko tarifa eta erregulazio-kanona kudeatzen dituen ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege Dekretuan, zeina 2021eko ekainaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* (151. zk.) argitaratu baitzen; beraz, zuzenketa hau egiten da:

76283. orrialdean, 1. artikuluko a) apartatuan, hau dio: «Kontratutako potentzia (potentzia-termino finkoa) 10 kW-tik beherakoa duten elektrizitate-hornidurako kontratuen titularren alde...». Baina hau esan behar du: «Kontratutako potentzia (potentzia-termino finkoa) 10 kW-koa edo hortik beherakoa duten elektrizitate-hornidurako kontratuen titularren alde...».